

# BALIO PROPOSAMENA

Gure ideiarekin, energia sortu eta aurreztuko genuke eta kirola sustatuko genuke. Adibidez; batxilergoko 2.mailan ez da egoten gorputz hezkuntza, beraz, gazteek kirola egin ahalko lukete ikasten duten bitartean. Gainera, pertsona batzuei gustatzen zaie kirola egitea telebista ikusten ari diren bitartean; horrela, pedalekin energia sortu ahalko lukete eta bateriak elektrizitatez bete.

Pertsona guztiei bideratutako produktu bat da. Gure ustez, energia berriztatzeko ez dugu ostoporik izan behar eta lortuko genuke edozein erosteko ahalmena izanda, *kinergi-ak erosi ahal izatea*. Gure ustez, energia berriztagarriak lortzeko modu berri eta ezberdin bat da.

Gure ideia nobedade bat izango litzatekenez, hasieran beste denda batzuetan salduko genituzke gure *kinergi-ak* eta behin ospe bat izanda, gure denda propioak eukiko genituzke. Ondoren, gure bezeroak aurkitzerakoan webgune bat sortuko genuke eta aldi berean denda bat egin. Modelo ezberdinak egoera ezberdinetarako egingo genituzke, gure proiektua ondo aprobetxatzeko eta luzaroan iraun ahal izateko. Horrela, lortuko genuke bezero berdin bati hainbat modelo ezberdin saltzea eta diru gehiago irabaziko genuke.